

## **2007. urtean Muskizko auzoetako jaiak antolatuko dituzten pertsona zein taldeek diru-laguntzak eskatzeko deialdia egiten du Muskizko Udalak**

### **1. Xedea.**

Deialdiaren xedea honakoa da: Muskizko auzoetako jai-egitarauak sortzen dituzten gastuetan diruz laguntzea eta diru-laguntzen baldintzak arautzea.

### **2. Aurrekontua.**

Kultura Sailak 18.000€ko aurrekontua izango du horretarako.

### **3. Onuradunak.**

Diru-laguntza hauen onuradun, irabazi-asmorik gabeko pertsona zein elkarteak izan daitezke, beti ere, ondorengo baldintzak betetzen badituzte: Elkartea edo pertsona Muskizkoa izatea; eta Udal honetan erregistratua eta indarrean dagoen legeriaren arabera eratua egonik, Muskizko auzoren bateko jaiak antolatzea.

### **4. Kanporaketak.**

Ondorengo hauek diru-laguntza deialdi honetatik kanpo geratuko dira:

- a) Deialdia egiten duen Sailarekin zerikusirik edo loturarik ez dutenak.
- b) Beste Erakunde Autonomo edo Udaleko beste Sail batzuen programetan egon beharko liratekeenak. Kasu horretan, dagokion Sailera edo Erakundera bidaliko da eskabidea, interesatua jakinaren gainean jarriko delarik.
- c) Laguntza izenduna xede duten programak eta Sail honen barruan beste deialdi batzuetan egokiago leudekeenak.

### **5. Aurkeztu beharreko agiriak.**

Elkarteez honako dokumentazioa erantsi beharko diote euren eskabideei:

- 1) Deialdi honi atxikita dagoen eskabide orria.
- 2) Jai-egitarauaren deskripzioa.
- 3) Gastuen eta diru-sarreraren aurrekontua, ondorengo gidoiaren arabera:

Gastuen aurrekontua:

—Hirugarrenengo baten gastuak (zerbitzuak, laguntzaileak).

—Materialak eskuratzea.

—Sustapena (kartelak, programak, iragarkiak...).

—Beste batzuk. (Menuak ez dira gastutzat hartuko, diruz lagundu den jardueran parte hartu baina elkartekoak ez direnen menuak izan ezik).

Diru-sarreraren aurrekontua:

—Eskaera egin duen elkarteak izandako diru-sarrerak: salmentak, txosnak, zozketak, kuotak...

—Beste Erakunde Publiko zein Pribatu batzuek emandako diru-laguntzak edo dohaintzak.

—Beste batzuk.

4) Bizkaiko Foru Ogasunak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak, zergei eta Gizarte Segurantzari dagozkien erantzunbeharrak eguneratuta daukatela adierazten duten egiaztagiria, bidezkoa bada.

5) Dirua sartu beharreko bankuko kontuaren fotokopia, diru-laguntza eskatzen duen pertsona edo elkartea agertu behar delarik kontuaren titular.

6) (Lehenengo aldiz eskatzen dutenentzat bakarrik): Identifikazio fiskaleko kodea, eratze-akta eta Estatutuen fotokopia.

7) Eskatzaileek eskaerari balio handiagoa emateko interesgarritzat jotzen duten beste edozein agiri.

Eskariek ez balituzte eskaturiko datu guztiak bilduko edo oinarri hauetan eskaturiko dokumentazio guztia aurkeztuko, hamar eguneko epea emango litzazieke datu guztiak biltzeko edo dokumentazio guztia aurkezteko; eta horrela egingo ez balute, eskaera baztertu egingo da.

Jardueren inguruko dokumentazioaz gain, Udalak diru-laguntza eskatzen duten pertsonen zein elkarteen jarduna baloratzeko behar duen beste informazio eska diezaieke.

### **6. Eskabideak aurkezteko epeak.**

Deialdi honen argitalpenetik 30 egun naturaleko epea.

### **7. Diru-laguntzak ebaluatzeko eta emateko irizpideak.**

Eskaerek, gehienez 100 puntu lortu beharko dituzte, honako irizpideak kontuan harturik:

1. Eskatzailea legez eraturako elkarte izatea. (15 punturaino)
3. Jaiaren gizarte-proiektzioa, tradizioarengatik, gizarte-onarpenarengatik, eta abararengatik, udalaren irizpideen arabera. (25 punturaino)
4. Aurkeztutako ekintza edo programaren aurrekontu osoa. (45 punturaino)
5. Beste auzo batzuetatik eta Muskizko herrigunetik aldentuta dagoen auzoa izatea. (15 punturaino)

25 puntu baino gutxiago lortzen dituzten eskaerei ezetza emango zaie. Auzo berean jaiak antolatzeke eskaera bi aurkeztuz gero, puntu gutxien lortu dituen atzera botako da. Diru-laguntza deialdi honetarako ezarri den aurrekontua onartutako eskaera guztien artean banatuko da, bakoitzak lortutako puntuen proportzioan, salbuespen hauek kontuan harturik: 1.- Diru-laguntzaren zenbatekoa ezin izango da aurkeztutako aurrekontuaren %75 baino handiagoa izan, eta 2.- Diru-laguntzaren zenbatekoa ezin izango da Kultura Sailak deialdi honetarako ezarri duen kopuruaren %25 baino handiagoa izan. (Bi kasu hauetan, salbuespenak egon litezke behar bezala arazoituta eta Kultura Sailak oniritzita badaude).

#### **8.Ebazpenaren jakinaraztea**

Behin eskaeren ebazpena eginda, dagokion Sailak eskatzaile guztiei idatziz jakinaraziko die, emango dien diru-kopurua bankuan sartuko dielarik ondoren.

#### **9.Diru-laguntzen justifikazioa eta itzultzea**

Ekintzak burutzen direnetik bi hilabeteko epean justifikatuko dira. Aurretik emandako diru-laguntza zegoen epean justifikaturik ez duten pertsonen edota elkarteek ez zaie diruz lagunduko.

Diru-laguntza justifikatzeko honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- 1.- Gastuen laburpenaren zerrenda, eskaeran dagoen gidoiaren arabera zerrendatuta.
- 2.- Aipatu gastuen fakturak.
- 3.- Diruz lagunduko den ekintza edo programaren balorazio eta deskripzioaren memoria.
- 4.- Kartel, liburuxka eta editatu den publizitatea, Udalaren laguntza duela adierazi beharko delarik.

Muskizko Udalak behar bezala justifikatu ez den diru kopurua erreklamatu ahal izango die diru-laguntza jaso duten elkarte eta pertsonen.